

Europako sindikatuak enpleguaren alde mobilizatu egingo dira etzi

Euskal Herrian Gasteiz eta Irunen antolatu dira ekintzak, batasun barik

Apirilaren 2an Europa osoan egingo den sindikatuen lehen mobilizazioak enpleguaren erreibindikazioa izango du ardatz nagusi. Sindikatuen Europako Konfederakundeak (SEK) deitutako protesta egunean bi ekitaldi izango dira Euskal Herrian, Irun eta Gasteizen, sindikatuen batasunik gabe.

M. ARREGI / BILBO

Hego Euskal Herria eta Aragoiko UGT eta CCOO, Iparralde eta Akitaniako CFDT, CGT eta CFTC sindikatuak bilduko dira Irunen eta manifestaldia eta kontzentrazioa egingo dituzte. ELA sindikatuak, berriz, milaka ordezkari biltzea espero du Gasteizen antolatu duen mitin-kontzentrazioan. Bertan Jose Miguel Leunda, Jose Elorrieta eta Juan Miguel Mendoza sindikatuko arduradunek hitz egingo dute. LABek ez du mobilizaziorik antolatu apirilaren 2rako, ez baita SEKeko partaidea.

Hasiera batean Sindikatuen Europako Konfederakundeak gizarte hobekuntzak eskatzeko antolatu zuen etziko mobilizazio eguna, baina langabezia kontinenteko langileen arazo larriena dela ikusita enpleguaren aldeko erreibindikazioaren inguruan eratu dira protesta ekintzak, 'Denok enpleguaren alde' lelopean. Bakarrik Europako Komunitatean 16 milioi langabetu inguru daude gaur egun.

Europako 22 estatutako 45 sindikatu konfederakunde biltzen ditu SEKek, 45 milioi afiliaturakin. Sindikatu hauek salatu dutenez, Europaren eraikuntzan alde batera utzi izan da gizarte arloa, ekonomi irizpideen azpitik, alegia.

EKONOMI ETA GIZARTE GARAPENA SEK en batzorde eragilea Bruselan bildu zen hilaren 4 eta 5ean eta apirilaren 4eko mobilizazio egunerako erreibindikazio plataforma onartu zuen. «Langabeziak larriagotzen duen bazterkeria eta pobrezia aurrean, arrazakeriaren hedapenaren aurrean eta gizartearen Europa eratze atzerapenen aurrean» egin du konfederakundeak mobilizazio egunerako deialdia. Plataforma azaldu duenez, «ekonomi eta gizarte aurrerapena, elkartasun eta tolerantzia, eta sindikatuen partaidetza bilduko dituen Europa eraikitze asmoa» agertuko dute sindikatuak etzi.

Ekonomiaren suspertzea haz-



Sindikatuak salatu dute European gizarte arloa alde batera utzi dutela.

kundea eta enpleguaren aldeko elkarlanean oinarritu beharko litzatekeela iritzi dio sindikatuen elkarte europarrak. Ildo honetatik, inbertsio publikoen beharra azpimarratu du eta pribatua bultzatzeko interes tipoa jaitzi eta armonizazio fiskalaren alde agertu da.

Plataforman jasotzen diren erreibindikazioen artean merkatu politika aktiboak eta langileentzako heziketa eta birziklaia ere azaltzen dira. Lan orduen murrizketa eta negoziazio kolekti-

boan oinarritutako lanaren banaketa aurrera eramatea ere eskatu du SEKek.

Oinarritzko eskubideak ziurtatuko dituen lan arloko legedia eta gizarte babes sistemen defentsa ere erreibindikazioen artean ageri dira. Sindikatuen konfederakundeak gizarte elkarriketaren aldekoa da «benetako negoziaketa kolektiboa eta Europa osoko akordioak» lortzeko. Ildo honetatik SEKek «beren ardurak bereganatzeko» eskatu die Europako enpresariei.

Bertakoak ez diren langileek lan baldintza eta eskubide berberak izatea eta Ekialde eta Erdialdeko herriei garapen «ekonomiko, politiko eta demokratikoa» bidean laguntzea erreibindikatu du sindikatuen erakundeak.

«Gizartearen Europa, enpleguarena, anaitasuna eta gizarte justiziarena, demokraziarena eta bakearena» eskatuko dute Sindikatuen Europako Konfederakundeak partaide diren sindikatuetako kideek etzi.

ELA: «Europa teilatutik hasi nahi dute, enplegua eta gizartea ahaztuz»

M. A. / BILBO

ELA sindikatuak manifestaldia eta mitin-kontzentrazioa egingo ditu Gasteizen etzi, «Europaren eraikuntza teilatutik hasi eta enplegu eta gizarte baldintzak ahaztu» direla salatzen. Juan Miguel Leunda ELAko lehendakariarekin batera Jose Elorrieta idazkari nagusia izan zen atzo Bilbon mobilizazioaren aurkezpena.

Europaren ekonomi arloko neurriek lehentasuna dutela adierazi zuen Leundak, eta gizarte arloa baztertu egin dela salatu. «Europa eraikitzen ari den moduan langabeziak gora egiten jarraitzen du eta Iparraren eta Hegoaren arteko ezberdintasunak

areagotuz doaz» gaineratu zuen ELAko lehendakariak.

Apirilaren 2ko mobilizazioekin «etorkizunean langileak gehiago izan ditzaten kontuan» ohartarazi nahi zaie politikariei Leundaren esanetan.

Elorrietak mobilizazioaren izakera «kontinental» azpimarratu zuen. Era berean Europako Komunitatetik eta estatuetatik bideratzen diren ekonomi politikak «gizarte arloan eta enpleguaren garapenerako txarrak» direla salatu zuen.

Ildo honetatik, nahiz eta estatu bakoitzak bere arazo bereziak eduki, egoera komunak hartu dituzte oinarritzat sindikatuak mobilizazioak aurrera eramateko, ELAko ordezkariak jakina-

razi zuten.

Euskal Herrian ez da ekintza bateraturik egingo «sindikatuaren artean ez dagoelako elkarlan egonkor egoerarik une hauetan», Elorrietaren iritziz. Sindikatuen arteko ezadostasun handienak negoziaketa kolektiboaren arloan agertzen ari direla azaldu zuen.

Europa osoan egingo diren mobilizazioen artean Belgika eta Holandako sindikatuak Maastichten egingo duten kontzentrazioa azpimarratu zuen ELAko idazkariak.

«Ikusgarriena izango da, enblematikoa, bertan Europaren batasunerako onartu zen dokumentuaren hutsuneak azpimarratuko baitira» esan zuen.

LABURREAN

MICHELINeko batzordeak itxialdia egingo du

Michelin konpainiak Gasteiz, Aranda de Duero eta Valladoliden dituen lantegietako enpresa batzordeek itxialdiak egingo dituzte bihar lantegi hauetan aurtengo hitzarmenerako negoziazioak desblokatzea eskatzeko. Enpresako zuzendaritzak apirilaren 15erako atzeratu ditu negoziatioak, orain arteko bilerek ez baitute emaitzarik izan. Michelin 10.700 langile dauka Espainiako lau lantegietan, horietatik 5.580 Gasteiz eta Lasarten.

ETXEBARRIKO AHVk CSI biltzea eskatu du

Etxebarriko (Bizkaia) Bizkaiko labe garaien lantegiak Espainiako Siderurgia Integralaren Korporazioarekin goi bilera egitea eskatu du, lantegi honen iraupena ziurtatzeko duten inbertsioak ziurtatzeko helburuz. Eskabide honen arrazoiak CSiko zuzendari batek eginiko adierazpenak dira, lantegi honetan egin beharreko inbertsioak zailtasun jarri baitzituen.

BAR Ezkerreko langabeen manifestaldia Sestaon

Ibar Ezkerreko Langabeen Asanbladak deiturik, bostehun bat pertsona manifestatu ziren atzo Sestaoko kaleetatik enpleguaren alde eta Sestao nahiz Barakaldoko udaletxeetan poliziek gertaturiko azken istiluak salatzen. Manifestaldia Sestaoko udaletxean hasi eta bertan bukatu zen, manifestariek Txetxu Milla alkate sozialista zirudien panpina errez.

TOLOSALDEKO Jarrairen mobilizazioak

Tolosaldeko Jarrai gazte abertzaleen erakundeak zenbait ekintza antolatu du datozen egunetarako enplegu eta ekonomi egoera salatzen. Tolosako Kultur Etxean 'Gaztedia eta Krisi Ekonomikoa' izenburuarekin hitzaldia izango da gaur zazpi t'erdietan.